



## II. ERANSKINA. EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK

### 1. Lizitzaileak EKAB aurkezteak balio du lizitazio prozeduran parte hartzeko agiri honetan zehatutako AURREKO BALDINTZAK BETETZEAREN lehen froga gisa.

Lizitzaileek EKAB agiria aurkeztu beharko dute, hots, finantza egoeraren, gaitasunen eta kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko enpresen egokitasunaren erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 140. artikularekin eta 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Gauzatze Erregelamenduari (EB) bat etorritik, azken horrek ezartzen baitu Europako kontratazio agiri bakarrerako formulario normalizatua.

Kontratazio organoak aldeztatik BAT zenbakidun gutun azalean aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko bere eskumenak erabili ahalko ditu, horretarako dagozkion egiaztapenak aurkezteko eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikuluari jarraikiz.

Edozein kasutan, lizitzaileak EKAB agiria aurkezteak berekin dakar konpromiso jakin bat, hots, kontratuaren esleipen-proposamena bere aldekoa bada, ordezkatzeko dituen egiaztapenak helaraztekoa 27.1. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

### 2. EBAK formulario normalizatua.

EKABen formulario normalizatua lizitzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espdl/filter?lang=es>.

### 3. Jarraibideak:

Dokumentuan deklaratu diren betekizunak bete egin beharko dira, edozein kasutan, lizitazio epearen azken egunez, kontratatze debekuei buruzkoak izan ezik, horiek mantendu egin beharko baitira gutxienez kontratua formalizatu arte, eta Administrazioak egiaztapenak egin ditzake prozedurako edozein unetan.

Adierazpena horretarako nahiko ahal duen pertsonak sinatuta egon behar da.

Kontratuaren xedea lotetan zatitzea aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lotetik lotera aldatzen badira, Europako kontratazio agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimen baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote bakoitzeko edo lote talde bakoitzeko.

**Bitartekoak atxikitze eskakizuna** lizitzailearen kanpoko bitartekoekin betetzen bada, lizitzaile bakoitzeko eta kontratua gauzatzeko atxikitako bitarteko bakoitzeko EKAB agiri bat aurkeztu beharko da.

Enpresa batzuk aldi baterako elkarteak eratuz aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena egiaztatzea beharko ditu, eta guzti-guztiekin dagokien EKAB formulario normalizatua aurkeztu beharko dute. EKAB formulario normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriak gain, BAT



zenbakidun gutun azalean lizitzaileen adierazpena jaso beharko da, baldintza agiri honetako V. eranskineko ereduarekin bat, enpresa talde batekoak diren ala ez adierazi beharko baitute horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitzaileen Erregistroan edo Estatuko Lizitzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **inskribatuta** agertzen diren **enpresak** ez daude behartuta dagoeneko eguneratuta agertzen diren datuak helaraztera, betiere, EKAB agiriaren formulario normalizatuan inguruabar hori adierazten bada. Nolanahi ere, lizitzailea da ziurtatu behar duena zeintzuk diren egiaz inskribatuta eta eguneratuta agertzen diren datuak eta zeintzuk ez. Eskatutako datu edo informazioen bat aipatutako Lizitzaileen Erregistroan agertzen ez denean edo bertan eguneratuta ez dagoenean, formularioa betez helarazi beharko da.

EKAB formulario normalizatuari buruz, lizitzaileek **dokumentu hauek kontsultatu ahal izango dituzte:**

Web-orrian eskuragarri dagoen 2016/7 Erregelamendua (EB):

<https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf>

Estatuko Kontratazio Administratiboko Aholku Batzordearen 2016ko apirilaren 6ko gomendioa, hemen eskuragarri:

[http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20\\_3\\_.pdf](http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf)

**4. Prozedura honetarako formulario berezia jasotzen duen XML fitxategia kontratatzailearen profilean dago.**